

ITZ BI

ON JUAN ITURRALDE ETA SUIT JAUNA-RI

¿Zér naizu esatea, adiskidea,
 Donostiatik?
 ¿Zér Ernanitik, zurea izatendan
 Uda-kabitik?
 ¿Zér, zér nere probinzi Gipuzkoako
 Triste ontatik?...
 ¡Begirazaiozu negarra dariola
 Mendietatik
 Bere malkoak kantauri-itsasoa
 Aunditu nairik,
 Zizpuru garratz, luze, penagarriak
 Eziñ itorik,
 Euskal-lurreko lengo aritz sendoak
 Doi-doi jasorik,
 ¡Legerik gabe!... baña bere oiturak
 Ondo gorderik,
 Eta Nafárrak semeak zaituztela
 Guri esanik!
 Orain, lagun maitea, ¿zuk zér diozu
 Nafar-aldeetik?
 Esanzadazu anaiak geradela
 ¡Bai!... ¡biotzetik!

ANTONIO ARZÁC.

1882-an

(De la REVISTA EUSKARA.)

